

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Omikronek ageriago utzi duen errealitatea

Beharbada hortxe arituko dira oraintxe Sabin Etxeko edo Ajuria Eneko komunikazio taldeak hurrengo kanpainatxoa prestatzen. Oporren ostean, *tournée* berri bat egiteko hedabideetatik, bereziki EitBko kate guztietatik, pandemiaren kudeaketaren izugarritzko gabeziek eta jendearen ezinegonak sortutako giroari aurre egiteko.

Ez luke inor harrituko orain arteko ildoari eustek, erruak besteen bizkar gainera botaz, egindako akatsak aitortu gabe. Orain arteko esperientziak ez du besterik iragartzen. Ez litzateke harritzekoa izango burukideren batek ETA ere aipatzea arretagunea lekuz aldatzeko edo, gutxienez, eztabaida kakazteko. Film hori ikusi dugu azken bi urteotan behin baino gehiagotan.

Gaur egungoa ez da erraz kudea daitekeen egoera. Horrenbeste badaki edonork. Eta kalean suma daitekeen haserre ez da arazo gaingintzea lortzen ez delako, herritarrek hainbat neurri, egoera eta adierazpen zentzugabetzat hartzen dituztelako baizik. Olatua izugarritzkoa da, eta beste leku batzuetan ere ezin aurre egin dabilta. Horrenbeste badakigu, baina gutxieneko zintzotasuna beharko litzateke hartu diren neurrien eta egin den diskurtsoaren gainean.

HARTUTAKO NEURRIEN ESANAHIA

Omikron oso kutsakorra da, eta horrek, adibidez, agerian utzi du Urkulluren neurri izarra, Sanchezek deituriko bileran aurkeztu zuena: maskara kanpoaldean derrigorrezko izatea. Paradoxikoki, esate baterako, konfinamendu gotorrean hainbeste aipatu zen telelaren erreferentzia lausotu da, nahiz eta badirudien egungo egoeran indartu beharreko neurria litzatekeela. Adibide bat baino ez, baina esan daiteke zenbait gai garrantzitsu desagerrarazi nahi direla. Hain zuzen, egiturazko aldaketak edo inbertsioak ekartzen dituzte-

nak. Kalean maskara derrigorrezko bilakatzeko ez da ezer behar, dekretu bat, besterik ez. Leku itxien segurtasuna handitzeko (garraioa, ikastetxeak, lantokiak...) neurri zehatzek zerbait gehiago beharko lukete, erabaki sendoak eta baliabideak. Errazago da, bistan da, haurrak eskolarteko kirolak gabe uztea.

Oro har, azken urteetan osasun sistemak pairatu duen txirotzeak eta, zehatzago, osasun larrialdiari amaiera eman zitzaionean hainbat baliabide indargabetzeak hausnarketa sakonagoa merezi dute.

Agintariak gaingintuta egotea ulergarria da; erabakiak hori estaltzeko edo mozorrotzeko hartzea, ordea, ez, eta horrek denak, gainera, ondorio kaltegarriak izan ditzake pandemiari aurre egiteko ondo egindakoak ere kalte ditzakeelako. Sinesgarritasuna garrantzitsua da

Agintariak gaingintuta egotea ulergarria da; erabakiak hori mozorrotzeko hartzea, ordea, ez, eta horrek denak, gainera, ondorio kaltegarriak izan ditzake

beti, baina are garrantzitsuagoa guztion bizitza hankaz gora jarri duen horrelako krisi batean.

Eta horregatik komeni da alferrikako polemikarik ez piztea, datuak ondo maneiatzea eta informazioa txukun kudeatzea, alarmismoari edo utzikeriari bide eman gabe. Adibide bat jartzearen: Euskal Herrian, bereziki Hego Euskal Herrian, txertaketa masiboa izan da, eta covid pasaportearekin sortutako polemikak ez du ezer onik ekarri.

Finean, oso gogoan izan behar da pandemiaren hasieran, txertoa ez zegoenean, biztanleria osoak etxean konfinatua egon behar izan zuela hilotzak gehiago ez pilatzeko, eta txertorik gabe azken urtea izugarria zatekeela. Horrek denak ardura eta apaltasuna eskatzen digu guztioi. •